



**2017KO IRAILAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren hogeita bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko irailaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 87 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HEMERETZI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (59.895,67 €)tako onartzea erabakitzen da.


III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOAK.-

- Bulego materialaren hornidura.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 21ko foru aginduaren bitartez, MONTTE S.L. (IFZ.:B20062295) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez bulego materiala hornitzeko esparru akordioa (X17005) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko irailaren 18an emandako txostenaren arabera proposatu du bulego materialaren hornikuntzako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.



Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko bost mila eta berrehun (5.200,00 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bulego materialaren horniduraren esleipena MONTTE, S.L.ri, N.I.F.: B20062295, egitea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea, uztailaren 24tik, asteen 15 ordutatik 10 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 17-11-07 zbk.dun esped.: abuztuaren 2tik aurrera zerbitzua jartzea, asteen 6 ordu, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 17-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea maiatzetik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 82,33 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %89 da.
- 14-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 86,02 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuetarako hilean 232,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %93 da.
- 489 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 84,18 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %91 da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea abuztutik, bizileku aldaketagatik.



LAZKAOKO UDALA

- 615 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea irailetik, heriotzagatik.
- 17-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea urritik, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeagatik.
- 16-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea irailetik, etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeagatik.

Ifarra Hegoa Lankidetzeta Programa.-

Adierazitako erakundeei eta zehazten diren proiektuengatik, zerrendatzen diren dirulaguntzak ematea:

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Mundu solidarioa helburu	Diriamban (Nicaragua) gaitasun urriak dituzten gazteen integrazioa lortzea.	6.750,00 €
DOA, Denok Osasunaren Alde	Beni departamentuko (Bolivia) osasun sistema sendotze plana, asistentzia eta formakuntza mailan.	6.000,00 €
Taupadak GKE	Ballivian (Bolivia) indigenen osasuna babestea eta ama-haur kopurua desagertaraztea.	2.400,00 €
Herriak elkarlanean	Beninen Mantako osasun zentroa.	6.000,00 €
Tximelagua	Urritasun fisikoa duten umeei zuzenduriko fisioterapia zerbitzua (Nikaragua).	6.000,00 €
Ilargi Beltza Elkarte	Nagaroteko (Nicaragua) desnutrizio kronikoa errotik ateratzea.	1.750,00 €
Asociación de Cooperación al Desarrollo Bilbotik Perura	Alto Trujilloko (Peru) emakumeen lan baldintzak hobetzea	2.000,00 €
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharako eskolan (Rwanda) eraikin berria eraikitzea	6.000,00 €
Lankidetzarako Ingeniaritza	Zambian landa eremuetarako bizi baldintzak hobetzea.	2.000,00 €
Donostiako Elizbarrutia	N'Daliko Aita Pio ospitaleko sendagileen prestaketa (Benin)	8.600,00 €
Bakerako Lankidetzeta Batzarra	Chimaltenango 7 emakume indigenen eta beraien familien baldintzak hobetzea (Guatemala)	4.500,00 €

Gizakia helburura joateko garraiorako diru laguntza.-



- 17-14-01 zbk.dun esped.: Hernaniko Gizakia Helburura joateko diru laguntza etetea uztailetik aurrera, joatetik utzi egin diolako.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako batzordeburuak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartzea erabakitzen du:

- Amalur mendi elkarte.-
Irailaren 16 eta 17an Esparru mendira bira dela eta, antolatutako gastuen aurre egiteko, 470 €ko diru laguntza ematea.
- San Benito Ikastola.- Sanmiel jaien barruan, plazan antolatzen den herri afariaren antolaketarako 800 €ko diru laguntza ematea.

VI.- SAN INAZIOKO ESPALOIJA BERRITZEKO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Inazio kaleko espaloien konponketa lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen bigarren obra egiaztatzea egin du. Bigarren obra egiaztatzearen zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILA ETA HAMAR EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (49.010,28 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Otegi Gaztañaga S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztatze hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

VII.- MIKELAR KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN LEHEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Mikelar kaleko birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztatzea egin du. Lehen obra egiaztatzearen zenbatekoa BERROGEITA HAMASEI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (56.371,08 €), BEZ barne, da. Lan hauek Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztatze hau aztertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALAREN